

» **TELEGRAMA**

Amama filmaren estetika gustatu? Erabili zituzten material artistikoetan oinarritutako erakusketa ikusgai dago Gasteizko Montehermoso jauregian otsailaren 26ra bitartean **STOP #AIFREEdo** izenarekin, egun osoko egitaraua prestatu dute otsailaren 11n Amurrion, **Alfredo Ramirez @erreharria** argazkilariaren aurkako epaiketa salatzeke **STOP** Trap zaleek Donostiako Dabadaban dute zita otsailaren 12an: **Kinder Malo** eta **Pimp Flaco** ariko dira zuzenean 20:00etatik aurrera **STOP**

» **DISKOA**

Pozgarria



Montse Auzmendi

Verdi-ren *Stiffelio* opera

BILBOKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Francesco Ivan Ciampa.

BILBOKO OPERAREN ABESBATZA

Zuzendaria: Boris Dujin.

Eszena zuzendaritza: Guy Montavon.

Bakarlariak: Roberto Aronica, Angela Meade,

Roman Burdenko, Francesco Marsiglia

Euskalduna Jauregia.

Urtarrilaren 21a.

OLBE bueltatu da betiko kalitatezko bideetara. Eskerrak! Oraindik gogoratzen dugu azaroan entzundako *Cenerentola* ahaztezina, eta ez zentzu onean esanda. Kasu honetan, kontrako sorpresa hartu dugu. *Stiffelio* harribitxi bat da, oso gutxitan programatzen dena. OLBERen ibilbide osoan hau da antzezten den lehenengo aldia. Izan zitekeen interes gutxiko obra, eta horrexegatik publikoak ez izatea gogo handirik entzuteko, baina Euskalduna Jauregian Regio di Parma Antzokiaren eta Monte-Carlo Operaren arteko produkzioa disfrutatu ondoren, *Stiffelio* mokadu aparta dela esan dezakegu. Ez da oso luzea, ordu pare bat irauten du etenaldiak kontatzen ez baditugu, eta sentimenduen koktel erakargarria eskaintzen du: amodioa, desleialtasuna, *Stiffelio* protagonistaren desio pertsonalen eta betekizun sozialen

arteko barne borroka, protagonista bakoitzaren maitasunaren kontzeptu desberdina. Benetan interesgarria. Eta, gauza guztien gainetik, Verdi onena dugu titulu honetan. Obertura zinez distiratsu eta argitsua dugu hasiera gisa, eta lanaren aria nahiz abesbatzaren numero batzuk Verdiren momentu ederreren artean koka ditzakegu.

Horrez gain, OLBEk ekarritako produkzio honetan primerako bakarlariak izan ditugu emanaldia erabat biribiltzeko. Bai Roberto Aronica tenorearen ahotsa bai Angela Meade sopranoarena primeran egokitzen dira *Stiffelio* eta Linaren roletara, behar den distira eta ehundura emanez interpretazioei. Hori bai, ez bata ez bestea, ez dira adierazkorrak taula gainean. Hau da, ahots ederrak entzun genituen, malguak, sentimenduz beterikoak, baina, agian eszena zuzendaritza eskas batengatik edota abeslariaren nolabaiteko zurruntasunagatik, ez zuten sinesgarritasun interpretatiborik eskaini.

Angela Meadek entzuleak txunditu zituen. *Oh cielo!, dove son io?* edo *Tosto ei disse! A te ascenda, oh Dio clemente* ariak momentu zoragarriak izan ziren. Erraz abesten du sopranoak, ahots biribila eta boteretsua du, txalo-jotze ederrak lortu zituen. Bestalde, Roman Burdenko baritono errusiarrak primerako Stankar egin zuen. Ikaragarritzko ahots ederra erakutsi zuen eta taxuz interpretatu zuen Linaren aitaren rola. Francesco Ivan Ciampa zuzendaria fintasunez aritu zen. Egia esan, alde musikalak, benetan mundiala, konpentsatu egin zuen ahultasun interpretatiboa edo eszenografia pobre/minimalista. Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Operaren Abesbatzak, eraginkorrak, beti bezala. ■

Roberto Aronica eta Angela Meade bakarlariak.

